



ASTE HONETAN **KOSTAKO ITZULIA** BIZIKLETAZ

Ibilaldi klasikoenetakoa proposatuko dizuegu honakoan; itzuli luzea da, guztira 85 kilometro dituelarik >6

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Ostirala
2010-09-17**

VIII. URTEA 2.076. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Bezeroei eskaintzen zaien zerbitzua hobetzea, jomugan

TOLOSA Turismoan, ostalaritzan eta merkataritzan ari direnei zuzendutako lau ikastaro antolatu dituzte

EDUKIA Kexa eta iradokizunak, langile berrien laneratzeari, adimen emozionala eta turismoa landuko dituzte 2



Ettxabe kultur dinamizatzailea, Amenabar alkatea eta Arteaga Azoka eta Festetako zinegotzia. E.MAIZ

BERTAKO ESNEA, ARTISAUAK ETA ELIKAGAIAK **AZOKAN**

ASTEASU Iraileko azken igandean egingo dute 10:00etatik aurrera; herriko esnea ere banatuko dute bertaratutakoen artean 4

Jose Antonio Alustiza eta Ttiki txapelaren bila

ARESO Pasa den urteko Euskal Herriko Artzain Txakur Lehiaketa irabazi ostean garaipena berresteko prest daude eskualdekoak 5

AITZIBER JAUREGI 19-90 TABERNAKO KIDEA

«Garaiko produktuekin oso gauza onak egin daitezke»

TOLOSA Tolosako Azokak + KM 0 ekimenean ariko da bihar Ibon Leundarekin batera 3

kurtsua 2011 maizpide

Urdukako ikastaroak, Euskara-planak enpresa eta erakundeentzat.

C-1 maila on-line. Autoikaskuntza. 4. maila.

Barnetegian hilabeteko ikastaroak. Familia euskaldunetan egoteko aukera.

Larunbatetan goi mailako ikastaroak.

euskaltegia-barnetegia • lazkao • 943 88 92 31 • lazkao@maizpide.com

K **Kirol jarduera****Bihar, irailak 18****Eskubaloia**

- Usabalgo beheko kantzax, 10:30ean, infantil mailakoen partida: Tolosa - Arrate.
- Usabalgo goiko kantzax, 10:30, kadeteen partida: Tolosa - Arrate.
- Usabalgo beheko kantzax, 12:00etan, jubenil mailakoen partida: Tolosa - Arrate.
- Usabalgo beheko kantzax, 18:00etan, senior mailakoen partida: Tolosa - Ereintza.

Saskibaloia

- Usabalgo goiko kantzax, 12:00etan, kadete mutilen partida: Take Tovar - Easo Haiza.
- Usabalgo goiko kantzax, 16:00, junior mutilak: Take - Urola.

Futbola

- Usabalgo futbol zelaian, ikadeteen ohorezko mailakoen partida, 10:30ean: Tolosa CF - Bergara.
- Usabalgo futbol zelaian, infantil txiki mailakoen partida, 12:00etan: Tolosa CF - Kostkas.
- Usabalgo futbol zelaian, 17:30, emakumezkoen senior F11: Tolosa CF - Ostadar.
- Berazubiko zelaian, 17:00etan, erregional ohorezko mailako partida: Tolosa CF - Oiarzun.

Etzi, irailak 19**Futbola**

- Usabalgo futbol zelaian, infantil artoke lehia, 10:00etan: Tolosa CF - Villabona.
- Usabalgo futbol zelaian, alebinak, 11:30ean: Tolosa CF - Villabona.

Gaur hasiko dira Udaberri dantza taldearen ikastaroak**ERREDAKZIOA**

Udaberri dantza taldekoak gaur ekingo diote ikasturte berriari, gaur izango baitute lehendabiziko ikastaroko eskola. Bestalde, dantza taldetik jakinarazi dutenez, haurren eta ikastaroetako taldeen ordutegiak www.udaberri.com helbidean jarri dituzte kide guztiek ikusteko.

**Garagardo mota ugari aukeran**

GIZARTEA ■ Atzo zabaldu zituen atek XII. Garagardo Azokak, eta igandera bitarte izango da zer edan eta zer jan. Lehen garagardo Pablo Uzkudun (Tolosaldea IKT); Mara Varela (Igarondo Urpekoak); Irene Usabiaga (Tolosa CF Txirindulari taldea) eta Maddi Amianok (Judo Club Tolosa) hartu zuten. Ondorengo egunetan 1.200 lagunentzat egokitu dute gunea. Festaren barruan beste hainbat ekitaldi ere izango dira. Atzokoan, esaterako Musika Bandaren saioa izan zen. I.T.

Lau ikastaro eskainiko dituzte zerbitzuaren kalitatea hobetzeko

Ekonomia ■ Tolosaldea Garatzenek, Tolosako Turismo mahaia eta merkatarik elkarke bultzatu dute ekimena.

IÑIGO TERRADILLOS

Berriki jakin dugu uda honetan eskualdea bisitatu dutenen kopurua asko igo dela beste urteekin alderatuta. Hainbat berrikuntzen, eskaintza aberastearen eta elkarlanean aritzearen ondorio direla emaitza horiek ondorioztatu dute turismoaren arduradunek. Badira, ordea, landu beharreko alorrak euren ustetan, eta horietako bat bezeroari eskaintzen zaion zerbitzuaren kalitatea hobetzea litzateke. Hutsune hori betetzeko helburuz, turismoan, ostalaritzan edota merkataritzan lanean ari direnei zuzendutako lau ikastaro eskainiko dituzte doan, irailaren eta urriaren.

Tolosaldea Garatzeneko Turismo sailak, Tolosako Turismo mahaia eta Tolosa&Co merkatarik elkarke elkarlanean bultzatu dituzte ikastaro hauek, Basquetour Turismoaren Euskal Agentziaren laguntzarekin, eta Anfitrioiak prestakuntza programaren ba-



Agustin Aduriz (Tolosa&Co), Nerea Letamendia (turismo zinegotzia) eta Olatz Ilarregi (turismo arduraduna), atzo. I.T.

rruan kokatzen dira. Plan honekin «bezeroek somatzen duten kalitatea eta enpresa eta jomuga turistikoen lehiakortasun maila hobetzea» lortu nahi dute.

Arlo pribatuan zein publikoan lanean ari diren langileei zerbitzuaren kalitatea hobetzeko tresnak eskainiko dizkiete hainbat ikastaroren bitartez. Horietan, pertsonen motibazioa eta barne komunikazioa hobetzeko teknirik erakutsiko dituzte, besteak beste.

Lau ikastaro

Ikastaro guztiak astelehenetan izango dira, 09:00etatik 13:00etara, Tolosako Emeterio Arreseko bigarren zenbakian. Doan izango dira, eta izena emateko nahikoa izango da Tolosaldea Tour-ekin edota Tolosa&Co merkatarik elkarkekin harremanetan jartzea.

Lehen ikastaroa irailaren 27an izango da, eta kexak eta iradokizunen gaia landuko dute, hau da, bezeroen iradokizunak kudeatzeko gaitasunak hobetzea izango da helburua, horretarako hartu hartu beharreko gakoak aztertuz.

Bigarrena urriaren 4ean izango da, eta hemen langile berrien lane-

ratzea erraztea landuko dute, lanpostuari lotutako hasierako prestakuntzaren diseinua eginez eta martxan jarri.

Hirugarren ikastaroa adimen emozionalari buruzkoa izango da, eta urriaren 18an emango dute. Gatazkak antzemateko eta era positiboan konpontzeko gakoak erakutsiko dituzte.

Laugarren ikastaroa urriaren 25ean izango da, eta jomuga turistikoa eskaintzen erakutsiko dute, hau da, bezero edo bisitariari inguruan dauden zerbitzu eta baliabide turistikoa gomendatzen.

Gutxienez 15 pertsonako taldeak osatu behar dira ikastaroak aurrrera eraman ahal izateko. Bestalde, azaldu dutenez, ekimenak izateko, arguak eta iradokizunak eman behar dira. Tolosaldea Tour-en (943 69 74 13, tour@tolosaldea.net) edota Tolosa&Co merkatarik elkarkean (943 65 35 78, tolosacomercio@gmail.com) eman behar da izena. Izen-abizenak, NAN, telefono zenbakia, posta elektronikoa, enpresa/zerbitzu turistikoa, herria, kargua edo lanpostuaren izena, eta aukeraturiko ikastaroa zehaztu behar dira.

» DATUAK

■ **Ekimena.** Bezero eta bisitariei eskaintzen zaion zerbitzuaren kalitatea hobetzeko tresnak eskainiko dituzten lau ikastaro.

■ **Nori zuzendua.** Turismoa, ostalaritza eta merkataritza alorrean lan egiten duten langileentzat dira. Hauek arlo publiko nahiz pribatuak izan daitezke.

■ **Izen-ematea.** Doakoak dira ikastaroak. Tolosaldea Tour-en (943 69 74 13, tour@tolosaldea.net) edota Tolosa&Co merkatarik elkarkean (943 65 35 78, tolosacomercio@gmail.com) eman behar da izena. Izen-abizenak, NAN, telefono zenbakia, posta elektronikoa, enpresa/zerbitzu turistikoa, herria, kargua edo lanpostuaren izena, eta aukeraturiko ikastaroa zehaztu behar dira.

Agustin Adurizek Tolosa&Co Merkatarik elkarkeko arduradunak, berriaz, «bi alorren elkarlanaren fruitu» dela ekimen hau nabarmentzen du, eta sektore horietan lanean dabiltzan langile oro animatzen ditu ikastaroetan parte hartzera, «guztiren onerako izango baitira».



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

E Elkarrizketa

AITZIBER JAUREGI ▶ 19-90 tabernako kidea



A. IMAZ

«Tabernariok ezin gara kexatu, azokak lana ekartzen digu»

Azoka ▶ Larunbateroko azoka Trianguloan egingo dute bihar, Garagardo Festa egongo baita Zerkausian.

ASIER IMAZ

Tolosako Azokak + KM 0 ekimenak aurrera jarraitzen du. Honen baitan, hilean behin, eskualdeko sukaldariren bat larunbateroko azokara hurbiltzen da garaiko produktuekin mokadugoxoak prestatzera eta banatzera, 11:30ean. Erosketak azokan bertan eginen dituzte eta ondoren Trianguloan Udalak jartzen duen sukaldetan hasten diralanean.

Bihar, hilak 18, Tolosako 19-90 tabernako Ibon Leunda eta Aitziber Jauregi egongo dira KM0 ekimenean. Trianguloan bertan egingo den azokan erositako produktuekin ondorengo egingo dute: «Garaiko barazki eta perretxiko salteatuak, lore erako arrautza eta Idiazabal gaztarekin».

Aitziber Jauregi beasaindarra den arren, Tolosara etorri zuten duela 10 urte. Duela bi urte inguru zabaldu zuten 19-90 taberna Ibon Leunda senararekin.

KM0 egitasmoa lehendik ezagutzen al zenuen?

Batez ere Ibonen ezagutzen zuten. Nik entzuna nuen baina zehatz mehatz ez nekien ongi zer zen. Asitehenean udaletxetik deitu ziguten;

larunbatean KM0 zegoela eta ea guk egingo ote genuen jakin nahizuten. Orduan azaldu ziguten nola funtzionatzen duen ekimena: azokan bertan egin behar da erosketa, ondoren bertako produktu horiekin sukaldatzeko Trianguloan.

19-90 taberna bat dela aipatu behar da, hau da, sukalde kontuetan pintxoetara mugatzen dela zuen eskaintza.

19-90 taberna bat da, baina gaueetan pub batek bezala funtzionatzen du. Ondorioz, gure sukalde oso mugatua da. Sukalde txikia eduki arren, ahalegin handia egingo dugu. Goi mailako sukaldetik ez dugu eginen, baina pintxoak lantzen saiatzen gara, kalitatezko produktuekin eta poltsikura egokituz.

KM0rako deitu zaituzte eta hori ez da kasualitate izan.

Egia da lan ona eginen ari garela pintxo mailan. Bi urte daramatzagu tabernarekin eta nire ustez bertako pintxoak ongi sartu dira herrian. Beste tabernei meriturik kendu gabe, pintxo berezigoagoak egingen saiatzen gara. **Pintxoan mundua gustukoa duzula nabari zaizu.**

Tabernan sukalde nik ematen dut. Ibon beste guztiaz arduratzen da eta gurekin dagoen beste mutil batek barrakolana egiten du. Hiruror artean ongi saikaturik daukagu egin beharrak. Gaztetatik sukaldetan ibilitako pertsona naiz, beste tabernetan edo leku desberdinetan, eta gustatu eginen zait gauzekin esperimentatzea. Hala eta guztiz ere, lehen esan bezala, ez naiz nitrogenoarekin edo antzekoekin aritzen sukaldetan.

Bihar noiz hasiko da zuentzat eguna?

08:30ak aldera Ibon eta biok azokara joango gara. Nolako pintxoak egin nahi dugun argi daukagu eta produktu horien bila joango gara. Garaiko produktu normalekin egingo dugu lan. Kalitate aldetik oso onak izango dira, azoka bertan erosiko ditugulako. Jendeak hori ere jakin behar duela uste dut, garaiko produktuekin gauza oso onak egin daitezkeela.

Jendearen aurrean arituko zaretan lehen aldiz izango al da?

Aurrez ere atera gara kanpora. Zortea izan dugu eta, bai udalak edo baita gure hornitzaileek ere, aukera hori eskaini digute. Bixiguaren festan birritan egon gara eta txuletarenean behin, Alejandro Goyaren eskutik. Azken honetan adibidez, berak aukeratutako haragiarekin pintxoak eginen arituginen.

Lasaitasun punttu bat ere eduki dezue orduan, ezta?

Ardura handia da. Azken finean, zure imagina da, zure burua erakusten ari zara eta bakarrik gainera. Pintxo hori lehen ere egin izan du baina aspaldi egin gabea naiz. Lehengo udan antzeko bat eduki genuen kartan eta oso ongi funtzionatu zuen. Gero, ez da berdina 10 egitea edo 100 prestatzea. Errespetu handia diot jendearen iritzia, errespetua eduki behar zaiolako eta zentzu horretan beldur pixka bat badut.

Erosketak egin ondoren, zein ordutan hasiko zarete lanean?

Erosketak azkar egin eta goiz hasi nahi dugu sukaldetan. Ez da lan handia baina arrautzak lore eran egin nahi ditugu eta honek lanketa

pixka bat eskatzen du. Gero, edozein etxetan egiteko moduko mokadua prestatuko dugu. Eguneroko sukalde errespetatu egin behar dela iruditzen zaigu, gure gurasoek eginen zutena delako.

KM0 ekimena Trianguloan izango da, baina baita azoka bera ere. Beasaindarra izanda, Ordizikoa gertutik ezagutzeko aukera izango zenuen. Tolosakoa nola ikusten duzu?

Goierriarren azokaren irudia Ordiziko azoka da. Ni baserriko alaba naiz; txikitatik bizi izan dugu baserria eta nire gurasoen kultura beti izan da azokara joatea. Aita adibidez, asteazkenean joaten zen Ordiziara. Egia esan, Tolosara etorri nintzenean, ez nuen hemengo azoka ezagutzen. Azken urteetan indar handia hartzen ari delariruditzen zait. Udalak egin duen lana handia izan dela ere onartu beharra dago, horrela izan delako. Azokako jendearekin eta inguruko merkatariekin eta ostalariekin larunbateroko azokari garrantzia ematen saiatu dira. Tolosako azokak duen gauzarik garrantzitsuenetakoa, larunbatetan eginen dela da, eta hori esplotatzen saiatu dira. Niri oso ongi iruditzen zait, ondo eginen ari direlako. Beste herrietan, Azpeitian izan ezik, ez dira larunbatetan eginen azokak. Hemengo jendea ongi etortzen zaio egun horretan izatea, erosketak lasai egiteko aukera eskaintzen delako. Tolosan bizi garen guztiok ezin gara kexatu, horrelako pribilegio bat edukitzea benetan baloratu beharreko gauza bat baita.

Azokak nekazarientzat duen onura nabarmena dela argi dago. Zuegan ere eragina izango du, ezta?

Azokak guri lana ekartzen digu. Tabernariok ere ezin gara kexatu, larunbatetan izango ez balitz, asteburua ez baikenuen larunbat eguerdian hasiko; beranduago izango litzateke. Azokaren inguruan ohitura handia dago Tolosan: aperitiboak, lagunekin gelditzea, buelta bat ematea... Goierri adibidez ez dago kultura hori. Hemen bai, eta oro har giro oso polita da. Beti ezagutu duzun baserriar horrengana barazkiak erostera joatea ere oso polita da. Denok esker-tzen dugun gauza bat dela iruditzen zait.

400 AUKERA HANDIA ETA GUZTIA
Kalitatezkoa

EDARIAK, ELIKAGAIAK, JANTZIAK, ESKULANCINTZA,
DISKOAK, LIBURUAK, DVDak...

SARTU ETA EROSI GUREAN www.euskalherrikoPLaza.com



Ainhua Etxabe kultura dinamizatzailea, Iñaki Amenabar alkatea eta Antonio Arteaga, Azoka eta Festetako zinegotzia. E. MAIZ

» ASTEASUKO AZOKA

Hilak 26, igandea

■ **10:00-14:00.** Azokari hasiera emango zaio. Eta Mikologi erakusketak ere izango da.

■ **12:30ean.** Esne Behien erakustaldia izango da.

■ **Postuak.** Denetarik izango da. Elikagaiak eta artisauak. Esne freskoa ere banatuko dute edateko. Behi esnearekin egiten dituzten produktuak...

■ **II. Arroz-Esne lehiaketa.** Parte hartzaileek, arroz-esnea etxean eginda 10:00etarako eraman beharko dute. 12:00etan sari banaketa egingo da.

■ **Ganadua.** Larre edo esne behiak, ardiak, ahuntzak, abereak, poneyak...Guztira, 100-110 buru izango dira eta denak Asteasuko base-rietakoak.

■ **17:00-20:00.** Azoka berriz irekiko dute.

■ **18:00etan.** Gorriti eta bere animaliak haurrentzako.

lehen esne aldia bukatutako biga onenariakoak. Jarraian, umealdi bat baino gehiago izandako behi onenak. Bestetik, kalifikazio nahiz puntuaketa onenekoak. Lagurren sailean, bizi guztian esne aldia eman dutenak eta azken sailean, ume gehien egin dituzten behiak izango dira». Azpimarratzekoa da, behi guzti-guztiak, Asteasukoak izango direla. Ganaduaren kasuan 14:00ak bitarte bakarrik egongo dira.

Era guztietako postuak

Bi gune ezberdinetan banatuta egongo dira postuak: herriko plazan jarriko den karpan eta frontoiaren barnean. Postuak ere bizitaban banatuko dituzte: artisau edo eskulangintza postuak eta elikagaienak. Guztira, 60-65 postu izango dira: bitxigintza, larrua, kristala, egurra... Guztiak eskuz egindakoak. Eta elikagaietan, gazta, ezti, gozogintza, ogia, konserverak, barazkiak... izango dira. Horietatik batzuk, herrikoak bertakoa izango dira eta «egiten duten ahalagina eskertzekoa» dela esan zuen Ainhua Etxabe teknikariak.

Azkenik, Tolosaldea, Goierri Giropuzkoa edota Euskal Herri guzti-jendeari bertara joateko gonbita luzatu nahi izan zien, Iñaki Amenabar alkateak.

Iraileko azken igandean Asteasuko Azoka izango da

Asteasu » 10:00etan emango zaio hasiera eta ganaduez gain, artisauak, elikagaiak, bertako esnea, trikitilariak, zantantzarrak... izango dira.

ENERITZ MAIZ

Hamabost urtez jarraian, Asteasuko Udalak, azoka antolatu du hilaren azken iganderako. Goizetik hasita, egun osoko festa izango da. Atzo eguerdian aurkeztu zuten udaletxean eta azalpen guztiak emateko bertan izan ziren, Iñaki Amenabar alkatea, Antonio Arteaga Azoka eta Festetako zinegotzia

eta Ainhua Etxabe, kultur dinamizatzailea.

Hilaren 26ean, egunari hasiera 10:00etan emango zaio eta 14:00ak bitarte hainbat postu, ganadua eta lehiaketa izango dira. Arratsaldez ere, 17:00etatik emateko bertan izan ziren, Iñaki Amenabar alkatea, Antonio Arteaga Azoka eta Festetako zinegotzia

ikusteko aukera izango da. 10:00etan, azokarekin batera, mikologia erakusketari hasiera emango zaio.

Bigarren urtez, Arroz-esne Lehiaketa burutuko da. Goizean zehar, esne behien erakustaldia ere izango da. Gainera, esne banaketa ere egingo dute, hau da, edalontzian bertako esnea banatuko dute jendeak edan dezan. Bertako esnea edatearen garrantzia azpimarratu nahi izan zuten «oso ona» dela azalduz. Esnea eta behia Asteasun nagusi izanik, edateko esnea banatzearekin batera, behi esnea

elaboratzen duten bi postu ere egongo dira. Arratsaldean berriz, haur eta gaztetxoei zuzenduta, Gorritiren animaliak izango dira Asteasun.

Ganadua guztia, herrikoa

Antonio Arteagak zinegotziak animalien artean aukera zabalera erakutsiko dela adierazi zuen: esne edo larre behiak, ardiak, ahuntzak, poney-ak..., denetarik. Kopuru aldetik, ikusgai, 100-110 buru izango dira. Ganaduaren identitatea bertakoa izango da, asteasuarra. Herrian jaio eta hazitakoak izango dira hain zuzen ere.

Frisona arrazako behi pintoen erakustaldia izango da eta ez lehiaketa. Bost sailetan banatu dutela jakinarazi zuen Antonio Arteagak: «Lehen umealdiko bigak, hau da,

8 orduko futbito txapelketa

Villabonako plazan
Izena emateko 11:00etan
txapelketa 12:00etan
(egurak txarra egingo bala kirolegian)

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza

• Izen emateko 943 69 44 58
edo billabonara@gmail.com
• Prezioa taldeko 50€ • SARIAK: 1. saria: 300€ • 2. saria: 150€
(Antolakuntzak ez du hartuko bertan gerta daitezkeen ezberharren erantzukizunik)

II. ARROZ-ESNE LEHIAKETA ERE IZANGO DA

Arroza, esnea, azukrea, kanela...etxe bakoitzean modu batera edo bestera egingo da hain ezaguna den postre hau. Nork ez du noizbaiz jan arroz esne eder bat. Oraingoan, lehiaketan parte hartzeko aukera dago Asteasun.

Azokaren barnean, II. Arroz Esne Lehiaketa ere egingo da. Norberak, bere arroz esnea etxean eginda eraman beharko du. Esne litro bat erabili da arroz esnea egiteko. Hilaren 26ean, 10:00etan eta ontzi bakar batean, frontoira eraman beharko da. Epaimahaia, 10:30etan hasiko da lanean, beraz, ordu horretatik atzera eramandako Arroz Esneak ez dira lehiaketan onartuko.

Epaimahaia, itxura edo aurkezpena eta zaporea baloratuko ditu. 12:00etan, sari banaketa egingo dute. Lehenengo hirurek saria izango dute. Hauek, antolaketaren esku geratuko dira, aldiz, saritu gabe suertatzen direnak, nahi izanez gero etxera eraman daitezke. Hain ezaguna den postrea egin eta lehiaketan parte hartzera animatu nahi da.



Bizi-Nahikoak kartetan trebeenak

IBARRA ■ Bizi-Nahi jubilatu eta pentsiodunen elkarteko kideak atzo eguerdian murgildu ziren jaietan. Hasteko, 12:00etan txupinazoa bota zuten eta jarraian hamaiketako ederra egin zuten. Arratsaldean berriz, areto nagusiko mahaietan bikoteka eseri, eta kartajokoan aritu ziren. 30 lagun inguru elkartu ziren ber-

tan, eta batzuk txintxonean jolasten ziren bitartean, beste batzuk puntuan eta tutean ere aritu ziren. 16:00ak aldera hasi ziren jolasean, eta iluntzera arte bertan aritu ziren jo eta su. Gero, mokadutxo bat jan zuten. Gaur berriz, ibilaldi batekin emango diete hasiera ekitaldiei. E. EZBZA



Jose Antonio Alustiza eta Ttiki bere txakurra. GEREDIAGA ELKARTEA / TXELU ANGOITIA

Euskal Herriko Artzain Txakur Lehiaketaren bila doa berriro Ttiki

Areso ■ Jose Antonio Alustiza eta bere txakurra egungo txapeldunak dira eta berriro lehian parte hartuko dute etzi

» PARTE-HARTZAILEAK

Bizkaia

■ **Txapelduna.** Lur txakurra eta Juan Jose Egurrola (Etxebarria).
■ **Txapeldunordea.** Luna txakurra eta Jose Ramon Garcia (Sodupe).

Araba

■ **Txapelduna.** Leze txakurra eta Jose Maria Jauregi (Illarduia).
■ **Txapeldunordea.** Azke txakurra eta Jon Zuazo (Nafarrete).

Gipuzkoa

■ **Txapelduna.** Azkar txakurra eta Juan Jose Arrizabalaga (Elgoibar).
■ **Txapeldunordea.** Txato txakurra eta Ramon Larrañaga (Azkoitia).

Nafarroa

■ **Txapelduna.** Ttiki txakurra eta Jose Antonio Alustiza (Areso).
■ **Txapeldunordea.** Txato txakurra eta Ramon Larrañaga (Azkoitia).
■ **Hirugarren sailkatua.** Hiru txakurra eta Jesus Razkin (Etxarri-Aranaz).

Ipar Euskal Herria

■ **Txapelduna.** Txiko txakurra eta Marzel Hualde (Aldude).
■ **Txapeldunordea.** Alai txakurra eta Michele Atxeritogarai (Iholdi).

harko dituzte parte-hartzaileek igandekoan. Lehenbizi obediencia deitzen diotena: bandera artetik eraman beharko du zakurra eta bi aldiz gelditu txistua jotzen dutenean. Gero artaldera sartu behar du zakurrak. Bigarren proban artzainaren ondora ekarri beharko du artaldea, gelditu eta gero hesitik igaro. Azkenik ardiak eskortan sartu eta atera egin beharko ditu.

Herriko baratza ederrenak bozkatzeko garaia iritsi da

Berastegi ■ Epai-mahaikoek bigarren ebaluaketa egin ostean, bozka emateko epea zabaldu dute jada.

ERREDAKZIOA

Bigarren ebaluaketa egin ondoren, irekita dago Baratza Txapelketako parte-hartzaileen lanak bozkatzeko epea. Kulturako batzordekideak eta lorezaintza teknikaria, barazki teknikari baten laguntzarekin, elkartu eta izena emandako partaideen etxeetatik igaro dira bigarren aldiz. Orain, baratzen ar gazkiak ikusgai daude Berastegiko webgunean, hau da, www.berastegi.com-en; udaletxean eta Gaztairnondon.

Puntuaketa erabakitzeke garaian, erdiak Udal batzordekide, lorezaintza eta barazki teknikarien esku egongo dira. Gaintzekoak berriz, herritarrek emandako botoei esker eskuratuko dituzte parte-hartzaileek. Bozketa erabat anonimoa izango da.

Baloratzeke garaian, koloreak eta landareen barietate eta konbinazioa hartuko dituzte kontuan, baita itxura eta txukuntasuna ere. Berastegiko Kultur Astean emango jakitera epai-mahaiak nor den irabazlea.

Herritarrek hilaren 30a baino lehen aukeratu beharko dute, hamaiki baraztetatik, zein den gehien gustatzen zaiena.

Bozkatzean, parte-hartzaile ba-



Hamabi baratzen artean aukeratu beharko dute herritarrek. HITZA

koitzari zenbaki bat eman diote, eta herritarrek beraiek ustez sari-tua izan behar duen parte-hartzailearen zenbakia jarri behar dute eskueran dituzten txarteletan.

Ondoren bozketako kutzara eraman behar dute orria. Gaztairnondon egiteko berriz, Migel Larbururi ematea daude, 16:00etatik 20:00etara bitartean.



Tolosaldetik kostaldera bizikletaz joateko proposamena egingo dizuegu aste honetan. Ibilbideak 85 kilometro ditu.

Kostako itzulia

JOXEMI SAIZAR

Ilaldi klasikoenetakoa aukeratu dugu gaurko, Tolosalde-tik, batez ere udan, kostaldera bizikletaz inguratzeke gehien erabiltzen dena: Kostako Itzulia. Buelta luzea da eta aldapa luze pare bat ditu: bat gogorra, Urraki mendatera, eta bestea ez hainbestekoa, Andazarrate mendatea.

Tolosa-Bidegoian

Lehen zatia ezaguna dugu jada, Tolosa eta Bidegoian arteko aldapa. Eta nahiko gogorra ez bada, kilometro batzuk luzatuko ditugu Urraki mendateraino. Horrela Azpeitira joateko hirugarren aukera osatuko dugu, aurreko ibilaldietan azaldutako Beizama eta Errezilgo aukerekin batera.

Jaitsiera gogorraren ondoren Inazio deunaren herrira iritsiko gara. Enparan etxea eta Antxieta jauregia bisitatu daitezke herri honetan.

Azpeitin utzi genuen Urola ibaia aurreko txango batean eta han hartu eta itsasoraino lagunduko dugu. Bide zelaia beraz, pixkanaka jaitsiz itsas mailaraino. Lastao auzoa pasa eta bainuetxearengatik famatua den Zestoa aurkituko

dugu. Ekain kobazuloaren erreplika den Ekainberri ikusi daiteke herri honetan. Ondoren herri honetako bi auzo ditugu, Iraeta eta alde batera Arroa, Urtain harrijasotzaille eta boxeolari ospetsuaren auzoa.

Aizarnazabal eta Meagasetik barrena jarraitzea da alternatiba bat, motzagoa, baina kostalderen ondotik jarraitzea erabaki dugu. Zumaiara iritsi eta hondartzan bainu bat hartzea gomendatzen dugu, Santiago hondartzan adibidez.

Aurretik San Pedro parrokia deigarria, paraje zoragarrian kokatua dagoen San Telmo ermita eta mundu osoko adituena aztergaia den flysch ikusi behar dira. Kantauri itsas ertzeko ikuspegi politenetakoa dugu hemendik aurrerako ibilbidean.

San Anton mendia edo Getariako arratoia dugu aurrean. Munduari lehen aldiz bira eman zion Juan Sebastian Elkano marinel ospetsua hemen sortu zen.

Tolosarekin batera nesken treineruan hain emaitza onak lortu dituen herria pasa eta Zarautz dugu berehala, «Erreginen hondartza eta hondartza erregina», esaerak




Getariako arratoia, Zumaiatik etorrira itsasertzetik. JOXEMI SAIZAR

dioenez. Kultur eta kirol pertsonai ugariaren jaiolekua eta bizilekua da. Santa Maria parrokia nabarmendu behar da arkitektura aldetik eta Photomuseum ere bisitatzeko modukoa da.

Itzulia Aiatik barrena

Itsas mailatik mendialdera jo behar dugu berriro, N-1 ekiditeagatik, Tolosaldera Aiatik barrena itzultzea komeni baita. Aldapa dugu berriro. Leuna Zudugarai gainaraino, Oriora iritsi baino lehen, eta ez oso gogorra Aia eta Andazarrateraino.

Zati hau ezaguna dugu, uda honetako lehen eskursioan proposatu baikenuen. Horrela bukatzen da batez ere udarako gomendagarri den egunpasa ederra.



H Hilberria

LAURA IRASUEGI URTIAGA

2010eko irailaren 15ean zendu zen
-Goian bego-



Urdaburu Mendizale Elkarteak zure lagunok ez zaitugu ahaztuko. Mendiak elkartu gaitu, eta mendian lagun izango zaitugu.



ERRENTERIA
2010eko irailaren 17an

LAURA IRASUEGI URTIAGA

Orrereta 1953-04-13, Oiarzun 2010-09-15



Lili bat hartu eta hostoz hosto erantzi eta harek zu ere amets eta harek zu ere erantzi eta hostoz hosto hartu lili bat



ORRERETA
2010eko irailaren 17an

Zure lagunak

JOSE SAIZ LARA

Herenegun hil zen, 81 urte zituela.



Emaztea: Perpetua Perez; alabak: Isabel eta Jesus, Nieves eta Jose Luis; bilobak: Paula eta Raul, Julen, Maddi; anai-arrebak: Jesus (†), Maria, Teresa (†), Emilia, Andres, Silvi eta Ausencia; eta gainerako ahaideek.

Adierazten dizuzete hileta elizkizunak GAUR, OSTIRALA, arratsaldeko ZAZPIETAN, ANDRE MARI parrokian izango direla.

LEGAZPI
2010eko irailaren 17a



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Laburrak

Villabona, Zizurkil eta Irurako taldeak, osatuta

EUSKARA • Tolosaldeko AEK-k Amasa-Villabona, Anoeta, Irura eta Zizurkilgo udaletan matrikulatzeko aukera badagoela gogoratu du. Euskara zerbitzuetan eman daiteke izena irailaren 24a bitarte. Momentuz eta izena emandakoei egindako mailaketa frogak kon-tuan hartuta, honako talde hauek osatu dituzte: Villabonan 10:00etatik 12:00etara eta arratsaldean; Zizurkilen 10:00etatik 12:00etara; eta Iruran 15:00etatik 17:00etara.

Irailaren 24an amaituko da matrikula epea

TOLOSA • Aitzol udal euskaltegiko aurrez aurreko klaseak datorren astean hasiko badira ere, talde batzuk osatze aldera, matrikula irailaren 24ra arte zabalik izango da. Ordutegia honakoa da: 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Informazio gehiago 943 65 10 06 edo 943 65 23 43 telefono zenbakietan edota www.tolosakoudala.net edo www.udaleuskaltegiak.com web-guneetan eskuratu daiteke.

'Panpina bizidunak' erakusketa luzatu dute

TOLOSA • Tolosako Topic zentroan gaur egun ikusgai dagoen *Panpina bizidunak* erakusketa urriaren 3ra arte luzatzea erabaki dute. Muñecos Animados enpresak 30 urteko ibilbidean egindako lan nagusien errepaso da. Asteazkenean 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik. Asteburu eta jaieetan berri-z, 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

«Jokoa, barrea eta irudimena» antzerki tailerreko ardatzak

Tolosa » laz aritutakoek izena eman dezakete jada; gainontzekoek astelehenetik aurrera egin ahal izango dute.

ERREDAKZIOA

Pasa den astelehenetik eman dezakete izena ematen den ikasturtean ere Tolosako Kultur Etxeak antolatutako antzerki tailerrean aritutako ikasleek. Berriek, aldiz, datorren astelehenetik aurrera egin ahal izango dute.

Elena Aranbarri izango da, urtero bezala, irakaslea eta iaiz jende asko animatu zela dio, horregatik ikasturte honetan ere betiko araua bete nahi dutela azaldu du, hau da, «talde handia osatzea eta honetan nahasketa eta aniztasuna izatea nagusi».

Aranberriren iritziz, helduek «umibertso berriak miatzeko indarra» galtzen dute eta horregatik oso tipikoak dira «lotsa ematen dit!», «ezin dut!» edota «ez zait ondo aterako», esaerak. Baina antzerki tailerrak hori guztia gainditzen lagundu dezake eta horregatik dira hauek tailerreko ardatz nagusiak: «jokoa, barrea, irudimena, eta noski, ikasturte bukaeran antzetzten dugun lana».

«Gure barneko haurrekin adiskidetzea»

Tailerrean jokoan aritzen direla dio irakasleak. «Hasteko gure egiteko garrantzitsu bat da gure barneko haurrekin adiskidetu eta gauzak egiteko grina berreskuratzea», argitu du. «Bizirik egotearen sentsazioa edukitzea da gako»,



laz 'Hiru kapela luze' lana antzetztu zuten. HITZA

gaineratu du. Tailerrean jokoa «sormenezko jarduerak» izaten da, «parentesi» baten modukoa. Barreari dagokionez, Aranbarriek «barre egiteko gai izatea norberaren inguruko ikuspuntu objektiboa izatea» dela dio. «Aktoreak trebetasun hau izan behar du eta trebetasun hau bizitza batean oinarritzen da».

Irudimena ere lantzen dute tailerrean eta hauxe da helburu nagusietako bat: irudimena entrenatzea. «Tailerrean izena ematen duten asko testu bat ikasteko gai izango ote direnaren beldur dira. Gure tailerrean irudimena garrantziko ariketak egingo dituzte, oso

garrantzitsua baita gure gorputza kanpotik irudikatzea, baina era berean, barruan gertatzen ari denaren jakitun izanda. Gure gorputza da lanerako dugun lantresna bakarra», argitu du.

Noski, tailerrean izena ematen dutenek ikasturte amaierako lana ere izango dute buruan. Urterto prestatzen dute antzezlan bat. Eguberrien ondotik hasten dira dena prestatzen eta urtarillan ikasleek lana egiteko prest dauden ala ez agertzen dute. Laz Miguel Mihuraren *Hiru kapela luze* (*Tres sombreros de copa*) lana antzetztu zuten eta Leidor bete egin zela ere nabarmendu du irakasleak.

Eskaintza zabala Asteasuko Usarrabi Usarrabi kiroldegian

ERREDAKZIOA

Urriaren 4an hasi eta ekainaren 17ra arte iraungo dute Usarrabi kiroldegiko ikastaroak eta beti bezala, aukera zabala da oso. Ikasturte osoko ikastaroak dira eta 65 eurotik 150 euro arteko kostua dute.

» IKASTAROAK

3. adinekoentzat gimnasia

■ Astelehena eta asteazkena. 10:30-11:15.

Aerobik

■ Astearte eta osteguna edo astelehen eta asteazkena. Lehen bi egunetan 09:30-10:30 eta beste bitan 20:00-21:00

Mantenuko gimnasia

■ Astelehena, asteazkena eta osteguna. 15:00-16:00.

Yoga

■ Astelehena eta asteazkena. 17:00-18:30.

Pilates

■ Astearte eta osteguna. 18:00-19:00.

Ciclo indoor

■ Lehen taldea: astelehen eta asteazkena. Bigarren taldea: astearte eta osteguna. 19:00-20:00.

Indoor zikloa (gazteentzat)

■ Ostirala. 17:00-18:00.

Dantza modernoa (gazteentzat)

■ Ostirala. 18:00-19:30.

tolosaldeko hitza.iragarkilaburrak.com

Astelehenetik ostiralera 10:00ak arteko iragarriak 24 orduko jarraian. IRAGARKIAK JARTZEKO: www.tolosaldetokohitza.iragarkilaburrak.com / 943-65-56-56 telefono zenbakia

Higiezinak

ETA ERRENTZAK

SALBU

Tolosa. Tolosako Alde Zaharrean 90 m²-ko atxiketa salgai. Egonean oinarri dago eta zirkuitu osoa du. Irteerak oso onak. 132.000 euro (22.000.000 puztu). Interesatuak deitu 943-43-00-20 telefono zenbakia. Zuzeneko salmenta.

Lana/legaztiak

LAN ESKAKIAK

PERTSONAK ZAINDU

Tolosa. Esperientziadun neska boteratsua da. Informatika eta lanerako zaindu. Interesatuak, deitu 685-706103 telefono zenbakia.

IRAKASKINTZA

Villabona. Ingelesko eskola erantsi du. Guztira 1000 maila. Taldea edo bakarka. Matrikulazioa 664-36 02 68 edo continental56@hotmail.com.

Itelgailuak

ALIZKAK

SALBU

Autos salgai. Volkswagen Touareg V6. Hiru urte ditu bakarrik. 100.000 kilometro. Oso egokia onen egoerara. Interesatuak, deitu 629-40 32 20 telefono zenbakia.

KANPONGAK

CUREAN

Lana/legaztiak

LAN ESKAKIAK

PERTSONAK ZAINDU

Dublin (Irlanda). Gure haurra zainduko dugu azpialdean bizi gabiltza. Familia euskal-irlandarra. Euskaraz hitz egitea ezinbestekoa da. Asteazkenean egonekotasuna eta unibertsitatean hasitakoak. Dublin inguruan. Beldintzetatik jartzeko bidali mezu bat lgongon@gmail.com era.

Aisia/kirola

OPORRAK/IRAGARKIAK

SANERKATZAK

Etorn/Ladosara. Nalansko Elvoren eribera sagutu nahi baduzu, etorri Ladosara eta eragan batzuk pasatu gure landetan. 677-83-40-47 edo 948-69 36 18.

Higiezinak

ETREKITTAK

SALBU

Larraun. Etebiza-jantzea salgai prezio onean. Auzal onduan. Larraun balneario, martxo, Jatorria, 4 lagia, 2ko-ma. Hiri-pantopaba. Herriaren inguruan jartzeko 688-77 58 14 (Jex).

Betea. Betea/planis salten da. Betea, hiru lagia, sukaldia, egongela, bi lagia/egitea egongo duen. Prezio onean. Interesatuak, deitu 629-40 32 20 telefono zenbakia.

Orio. Orio hondartza pisu berria salgai. Bi lagia, sukaldia, egongela, 2 bi lagia eta bi auzal/egiteko garaia. Termino eta kuratza ere baditu. Prezio onean. Interesatuak, deitu 685-14 29 15 telefono zenbakia.

Leku hau zure iragarkian zain dago

LAZKAO
Lana/legaztiak

AZKEN PISUAK SALGAI

Joxe Lata, 4-betela - 30210 Lazkao - 943-68 37 38
www.lamyfazkao.com

Salbide
SALBIDE
Higiezinen zerbitzuak

Bokas kalea, 6 • 20000 Zarautz
Telef: 943-01 07 00 • Fax: 685-71 85 56
www.imosalbide.com

Aizarnazabal. 3 lagia/egitea. 10 metroko zirkulu trapeziokarekin. Oso prezio onean. 20.000.000 pezeta.

Aizarnazabal. ALBIRA ONA (betebiza erakilerria) 3 lagia. 20.000.000 pezeta.

Zarautz. Aizen Portu Lagia/egitea eta hantza. Albia eta beti edonak. Trapeziokarekin eta lagia/egitea. 47.000.000 pezeta.

Zarautz. Vista Alegria. 2 lagia/egitea. Terraza handia. Egitea/egitea. 49.500.000 pezeta.

Zestoa. Arroz behea. 2 lagia/egitea. 26.000.000 pezeta.

Getaria. Herriaren kalea. 3 lagia eta 2 bi lagia/egitea. Trapeziokarekin. Egonean onean. Prezio onean. 42.500.000 pezeta.

Aia. Enkuntza berria. 3 lagia/egitea eta 127 m²ko terraza. 46.588.000 pezeta.

Aia. Santia auzo. ALBIRA ONA. 12 m²ko 3 lagia/egitea. 15 m²ko trapeziokarekin. Erreforma behar du. 25.885.000 pezeta.



17°
14°

GOIZA EURIA
ARRATS. EGUZKIA
BEROENA 16°
HOTZENA 13°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Legar Gordinilua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



BERASTEGI

Argazki hau bidali digu Aritz Ugartemendiak Argazki Lehiaketarako: «Berastegiko baratze batean eguzkilore eder hau topatu nuen!». ARITZ UGARTEMENDIA



TARRAGONA

Argazki hau bidali du Jon Dorronsorok: «Marivet-eko gaztelu honetan mendeetako historiaren arrastoak daude; harriek hitz egingo balute!». JON DORRONSORO

A Agenda

Azoka

■ **Tolosa.** XI. Garagardo Festa Zerkausian, kirol taldeek eta udalak antolatua.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Oargi Mendi Elkarteak irailaren 17, 18 eta 19an mendi irteera antolatu du Añelarre, Anie eta Lakartxela mendietara. Ostiralean atera eta Isabako aterpetxera joango dira, bertan lo egiteko asmoz. Larunbatean Añelarre (2.358 m) mendia igotzea aurreikusten dute. Ondoren, eguneko bigarrenari ekingo diote, hau da, Anieri (2.504 m). Mendi itzulia egin ostean, aterpetxera itzuliko dira lo egitera. Azken egunean, igandean, Lakartxela (1.982 m) igotzen saiatuko dira. Ondoren Tolosara etorriko dira. Izena eman nahi dutenek info@oargi.org edo 688 69 86 42 mugikorrean edukiko dute aukera.

■ **Tolosa.** Udazkeneko mahai jokoa antolatu ditu Iturriza jubilatu elkarteak: tute, puntxo, domino, billar, toka eta mus. Izen-ematea, 10:00etatik 12:00etara.
■ **Tolosa.** Udal Haur Eskolan matrikula irekita hilaren 30era arte Berazubiko egoitza. Telefono zenbakia: 680 82 65 79.

Erakusketa


■ **Tolosa.** K-2 tabernan Miren Gonzalez Goikoetxearen pintura erakusketa, oliozko 10 margolan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz azoza, 9. 943 67 51 18.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneri eta iritzien erantzukizunik.

A Agurrak



Zorionak bikote!

Oihana eta Aitor (Ibarra). Bihar ezkonduko da Oihana eta Aitor bikote gazte ibartarra. Zorionak alde zurretik senitartekoen eta lagunen partetik.



Urte askoan!

Nestor Barriola Goikoetxea (Tolosa). Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Lanerako prestatzen zaituzugu

NOBENTZAKO? ZER? ZERTANAKO?

- Minuzabalotasun bat baldin baduzu eta lan bila ari bazara
- Bilatu zen ari zaren lanerako trebakuntza eskaintzen dirugu:
 - Prestatutako zertifikatua eta homologatua
 - Metodologia berriak eta indibidualizatuak
 - Prozesu bukatzean, lana egiteko aukera CITEAK taldeko enpresan eta beste enpresetan
 - Zure atzetik gertu
- Praktikak eta lan aukerak:
 - Industria etate
 - Automozioa
 - Berregulazio
 - Trenbidea
 - Energi berri teknologia
 - Osagai plastikoen inguruko
 - Liburutegi laguntzailea
 - Catering eta ostalaritza
- Erakuntzen mantenimenduzko lanak
- Garbiketa industriala
- Casimirologia
- Luzerantz
- Kurtegia
- Harecapiak
- Vending
- Offhet inpresioa eta digitala
- Mailing-a
- Arte Grafikoen akaberak
- Centax Center
- Baca Office-ko akzio batzuk
- Beste jarduera eta nam neurriko beste aukera batzuk: zerbitzaria, dendaria, idazkaria...

Jari zaitze gurekin harremanetan: Itara Itara, s. -02018 Donostia 943 800 795. akademik@guadagurriak.com